



TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAREN EGUNEROKO JARDUNEAN ikastaroa Durango, 2008ko azaroaren 6a

TOPONIMOAK ARAUTZEKO IRIZPIDEAK

Iratxe Lasa

Ezer baino lehen

Ondoren mintzagai hartuko dugun gaiak goizeko saioetan eta ondoren Felix Mugurutzak aztertuko duenarekin lotura estua duen arren, ezberdinena izateaz gain, arlo zehatzagoetan sakonago murgiltzeko aukera emango digu. Agian, teorikoena eta filologikoena da, eta beharbada, zuetariko batzuentzako, zuen lan- eta ikasketa-esparrutik urrun samar dagoena. Halere, didaktikotasunari eusten eta ahalik eta argien eta ulergarrien egiten saiatuko naiz. Lortuko ahal dut!

Ezer baino lehen, eta azalpen zehatzei ekin aurretik, orain arteko saioetan behin eta berriz errepikatu diren zenbait ideia berriro ekarri nahi ditut; izan ere, garrantzitsua dena behin eta berriz errepikatzea ez da alferrikako lana izaten.

Honenbestez, eta neurri batean gai honek sortzen dituen eztabaida, mesfidantza eta fidagarritasun ezak bultzaturik, arautzearen beharra defendatu beharrean nago. Asko dira gai honek sortzen dituen zalantza eta eztabaidak –goizeko saioetan batek baino gehiagok ondo baino hobeto azaldu duen bezala-, eta horrek toponimoak arautzearen beharrezana eta arautze-prozesuaren fidagarritasuna goraiatzera bultzatzen nau.

Horrela, esana dugun bezala, euskararen normalizazioa –eta corpusaren normalizazioaz ari naiz, alegia, Euskaltzaindiak egiten duen lanaz, eta ez estatuaren normalizazioaz- ibilbide labur baina emankorra egin du, egiten ari da, eta egiteko dauka oraindik. Horren ardura, Euskaltzaindiak du, eta euskara hizkuntzari buruzko hainbat irizpide eta arau emanak ditu dagoeneko. Arauok eta gomendiook inoiz sortutako eztabaidak gorabehera, oro har, kontsentsu handia dago hizkuntza estandarren normalizazioari dagokionez. Inortxok ez du zalantzan jartzen, *mahai* hitzak <h> hizkia eraman behar duenik a bokalen artean. Toponimoekin, ordea, gauzak bestelakoak dira.

Euskara, Andres Iñigok ondo azaldu duen bezala, ez da gramatika eta lexiko arruntera mugatzen, eta onomastikaren alorrak ere, arautzearen beharra du; are gehiago, normalizazio prozesuan sartu behar dugu. Hori horrela izaki, zergatik sortzen ote du toponimia arautzeak horrenbeste eztabaida eta desadostasun?

Komentatu dugun bezala, izenak oso gureak dira, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugu herritar orok, euskal hiztunok zein erdal hiztunek. Horrek toponimia herritar oren “arazoa” izatea dakar, eta euskal hizkuntzaren inguruan dauden aurreiritzi eta jarrerak, toponimian ere islatu egiten dira, indar handiagoarekin gainera.

Hona hemen euskarazko toponimia normalizatzeari buruzko zenbait (aurre)iritzi:

- ▶ [...] Motrico, o Mutriku en *neolengua sabiniana* [...]
- ▶ [...] En el País Vasco, de momento menos intensivamente, se viene aplicando una política similar al tiempo que se eusquerizan las formas romances *originales* de esa región. Arbitrariamente se cambian los nombres de localidades con denominación romanceada [...]
- ▶ [...] ejemplifica también la obsesión nacionalista por eliminar la lengua española. El municipio *siempre* se ha denominado **Villarreal de Álava** y no **Legutiano**. Desde su fundación, en 1333, en la que el rey Alfonso XI manda establecer una villa "que haya por nombre Villarreal de Álava", éste siempre ha sido a lo largo de los siglos el nombre de la localidad. Se han desterrado los topónimos en español. Sin embargo, a finales de los 70 el nacionalismo obligó a oficializar en **euskera** todos los topónimos, a pesar de que *siempre* se hubiesen denominado en castellano y optaron por el nombre de Legutiano. La historia se repite en muchos municipios vascos donde se han desterrado los topónimos en español a pesar ser los nombres históricos y originarios. [...]
- ▶ *Traducir* los topónimos ha sido una de las misiones de algunas Comunidades Autonomas [...]

Baina, hori gutxi balitz bezala, euskaldunon artean toponimiaren kontuak ere, eztabaidak pizten ditu. Lehen Patxi Galék ondo azaldu duen moduan, ahozko eretatik hurbilago dauden formen "jatortasunaren" aldekoen aldetik bereziki. Nonbait, toponimiak, hizkera estandarreko idatzizko erabileran onartu ezin diren *txokokeriak* erabiltzeko aukera ematen omen du. Niri neuri behintzat "no tengo de comé, darme una alludita" erdaraz idatzita ikustea ez zait batere "jatorra" iruditzen; kartela eraman behar duen pertsonaren egoeragatik ez ezik, XXI. mendean kartela horrela idatzita ikustekak pena handia ematen dit eta. Haatik, badirudi *Izal* (*Idiazabal* idatzi beharrean) idaztea forma jatorra eta euskalduna dela; *Güerba* edo *Cebiya* idaztea bezain jatorra esango nuke nik.

Azken batean izenak gureak dira, gure ondasunenak, gure bizilekuarenak, eta gureak horrenbestez; balio sinboliko handia dute, ezbairik gabe. "**Beti** esan izan diogu horrela" diote batzuek; baina, zer da beti? Hitzunaren bizitzak iraun dituen 40 urteak akaso? Bai horixe, 500 urte baino gehiagoko baserriaren izena, 40 urteko bizilagunak ezagututakoa baino ez da balizkoa. Zer dira baina, 40 urte 500 urteren aldean? Toponimia hizkuntza bizia da eta oso aldagarria, jakina; baina ondo aztertu behar dugu lekuaren izenaren historia, betikotasunez hitz egin aurretik.

Gainera, toponimoak edo leku-izenak bakarrak dira, pertsona izenak ez bezala, errepika ezinak –salbuespenak salbuespen-, eta horrek leku horren izenari aparteko garrantzia eta sinbolismoa ematen dio. Halere, lehen nire mahaikideek gaia luze eta zabal azaldu dutenez, ez naiz luzaroago horretaz arituko. Azalpena osterara ere hona ekartzearen arrazoia, arautze lanaren garrantziaz ohartaraztea baino ez da izan eta.

Arautze laneko gorabeherei ekin aurretik, eta zuatoriko asko bezala neuk ere hizkuntza normalizazioan egiten dudanez lan, zera esatea lekuz kanpo ez dagoela esango nuke, alegia, nik hemen hizkuntza-irizpide filologikoez arituko banaiz ere, arautze prozesuetan ezin utz ditzakegu albo batera leku, inguru edo udalerririk horretako ibilbide soziolinguistikoa eta bertako hitzunen jarrera. Normalizatzeko prozesua ez baita amaitzen arautze lanarekin, eta Euskaltzaindiaren irizpenarekin; hitzunek eta herritarrek oro har forma horiek normaltasunez erabiltzearekin baizik; eta denok dakigu zein zaila den herritarren aurreiritzi eta jarrerak aldaraztea.

Leku-izenak, lekuaren izenak

Toponimoen arautzea, beraz, leku-izenen grafia egokia zein den esatea da. Baina leku baten izenaren grafia arautu aurretik leku hori izendatzeko egon daitezkeen izenen

artean egokiena erabaki beharko dugu. Izan ere, zoritxarrez edo zorionez –hizkuntza bizirik delako seinale baita- leku batek izen bat baino gehiago izan lezake.

Leku batek izen bat baino gehiago izan dezakete, maiz erromantzea eta euskarazkoa. Toponimia nagusian ditugu adibiderik argienak: *Areatza* edo *Villaro*, *Vitoria* edo *Gasteiz*, *Estella* edo *Lizarra* esate baterako. Beste zenbaitetan izen beraren aldaera ezberdinak ditugu *Mendotzaosteikoa* eta *Mendotzatzekoa* esate baterako.

Leku jakin bati ematen zaion izenaren txandakatzearen arrazoiak ugariak izan ohi dira: zenbaitetan, hizkeraren lexiko txandakatzeak dira: osteiko>osteko, atzeko; beasko>beko, goiti>goiko, eta abar. Beste zenbaitetan, inguruko aldaketek eragindakoa, esate baterako baserri berria eraiki eta berri horri zaharraren izena + berri izena ematen zaionez, zaharraren izena ere aldatu egiten da, eta –zar amaiera har lezake: *Agirrebarri* eta *Agirre>Agirrezar*. Jabea aldatu eta baserriaren jatorrizko izena txandakatu egiten da eta, bereziki jabea ezaguna denetan, jabearen izena edo ezizena hartzen du: *Landabasoerdikoa>Martxikoena* edo *Bernturena>Lapikotxuena* (azken izen hori, bertan bizi den andrea berba-lapikoa delako jarria). Azkenik, egoera soziolinguistikoak eragindakoak ere badira, Bakion, esate baterako *Askada* izeneko hondartzari, udatiar erdaldunek *Peñas rojas* esaten diote, eta Udalak, zentzu onez, behar bezalako errotuluak jarri ditu jatorrizko izenaren erabilera egokia berreskuratzeko, euskarazko aldaera, alegia.

Beraz, ondo aztertu behar dugu izen berrien jatorria, eta egun izen horiek duten balioa, hala nola, jatorrizko izenaren desagertze-maila. Jakina, zuzenena jatorrizko izena berreskuratzea da, eta berria baztertzea; baina beste zenbaitetan, zaharra dagoeneko guztiz desagertua dago, eta lehentasuna berriari ematen zaio, baldin eta txandakatze hori egoera soziolinguistikoak baldintzatu ez badu.


Nora jo oinarrizko informazio bila?

Toponimo baten idazkera zuzena arautzeko, ezinbestekoa zaigu informazioa baliatzea. Informazio hori, lehen esan bezala, dokumentazio historikoan du oinarri, alde batetik; eta egungo ahozko erabileran, bestetik. Mikelek eta Patxik ondo azaldu dituzte toponimia-ikerketen nondik norakoak, eta ez gara berriro horretaz arituko. Baina, ikerketarik egiteko dirurik ez bada, edo zalantza toponimo zehatz bati dagokionean, nora jo dezakegu?

Badira, oinarrizko bibliografia lanak, eguneroko zalantzak argitzen lagun diezaguketenak eta ezer baino lehen horietara jotzea komeni da: *Bizkaiko XVIII. mendeko fogerazioak*, *Polizia Zentsuak*, geografia historikoari buruzko lanak: Madoz, Delmas, Carreras Candi eta abar, Eleizalderen *Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas*, *Nafarroa eta mapagintza* lana, Luis Mugikaren *Euskal toponimiazko materialeak*, Patxi Galeren *Bizkaiko Gailurren Katalogoa*, Angeles Libanoren *Toponimia medieval del Pais Vasco* eta abar, eta abar.

Irizpide orokorrak: jakin beharrezkoak

► **Euskal grafiaz euskal toponimoak bakarrik:** euskal toponimotzat euskal etimologiadunak ez ezik, euskaraz erabili izan direnak ere hartzen dira. Horrela badira, erdal etimodunak izan arren, euskaraz mendeetan erabili izan direnak, eta zenbaitetan beste lexema euskalduna dutenak: *Kanterabide* (**Canterabide*), *Landaberde* (**Landaverde*).



Euskaraz erabilia izan dela jakiteko, eremu euskaldunean egon behar izan du. Horrela, hiru eremu bereizten dira toponimiaz ari garela, eta banaketa hori gogoan izatea toponimia arautzean garrantzitsua da: eremu euskalduna, zeinetan salbuespen gutxirekin toponimiaren %90 baino gehiago euskalduna den; euskalduna izandako eremua, zeinetan euskara galduta den, baina euskal toponimia topa dezakegun; eta azkenik, eremu ez euskalduna, non euskara inoiz izan bada, ez dugun horren

aztarnarik, hain zuzen ere Nafarroako erribera, Arabako hegoaldea eta Bizkaiko Enkarterriak.

Euskararen 10/1982 Legearen 10. artikulua dio: “jatorrizko izen euskaldun, erromantzeko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez”. Beraz, azken batean *Galdacano*, *Lemoniz*, *Lejona*, *Jemein* edo *Legutiano* bezalakoak, euskal etimologiadun euskal toponimoak dira, erromantzeko grafiaz eta eboluzioaz. Halakoetan, kafkiar samarra gertatzen da, bikoiztuta ematea, Arabako zenbait lekutan, eta zer esanik ez Nafarroan gertatzen den bezala: *Galdacano-Galdakao*, *Lemoniz-Lemoiz*, *Lejona-Leioa*, *Jemein-Xemein* edo *Legutio-Legutiano*. Horrek ez dio inolaz ere elebitasunaren normalizazioari laguntzen, eta jendeak hori ikusi dezala lortu behar dugu (goian ekarritako aurreiritziak gogoan hartu besterik ez dugu).

► **Espezifikoa / Generikoa:** Espezifikoa toponimoari, izen bereziari alegia, esaten diogu. Generikoa, aldiz, izen bereziari laguntzen dioten izen arruntak dira, lekuaren izaera geografikoa azaltzen dutenak: mendia, gana, erreka, troka, soloa, etxea, berezia eta abar.

Bi osagai hauek bereiztea oso garrantzitsua da, izan ere toponimoa zein den jakin behar dugu: *Pagasarri* da, ez *Pagasarri mendia*. Beti, ordea ez da hain argia izaten, eta zenbaitetan toponimoaren parte da generikoa: *Sanpablomendi*, *Autzagana*, *Pagoleagaburu* edo *Abadiñobaso*, esate baterako.

Toponimoaren parte ez denean bereiz idatzi behar dugu, eta generikoa hizkuntza estandarraren idazkera arauari jarraiki idatziko dugu: *Aurreko soroa* baina *Tximinisolo*. *Agirreko iturria* baina *Lapuriturri*. Salbuespenak etxe izenak dira, deklinabide hondarkia izan arren, beti lotuta emango baititugu.

Maiz izen berezia + deklinabide hondarkia + generikoa egiturako toponimoak topatzen ditugu. Halakoek balio erreferentziala izaten dute: *Boluko zubia* (*Bolua* baserri ondoko zubia). Halakoetan, generikoa toponimoaren atala da, zalantza barik, baina noraino da izen hori toponimoa ala erreferentzia bat al da? Komeni da ondo aztertzea zein den ahozko erabilera, eta ikusi beharko genuke, alegia, erdarazko erabileran itzuli egiten den, ala “*Boluko zubia*” erdarazko erabileran ere erabiltzen den.

Generikoetan izen arruntak izanik, hizkuntza estandarraren arauari jarraitu behar zaio idazteko, baina badira tokian tokiko euskalkietan eta euren literaturan asko erabiltzen diren formak: errekea, xilo, gana, atxa, üthurri eta abar. Euskara batuari jarraitu beharko zaio, ordea, hautazko toponimoa denean. *Atxuri* haitza baina *Atxuriko atxa*, esate baterako. Generiko batzuk maileguak dira, eta nahiz eta hobe den jatorrizko hitza erabiltzea oso zabaldua daude: txabola, kantera eta abar; horrelakoak ere onargarriak dira.

Euskara galdua den eremuetan, gainera, generikoa errepikatu egiten da maiz erdaraz: *Monte de Mendiandia*, esate baterako, gehitu zaion erdarazko generiko hori kendu egin behar da.

- ▶ **Deklinabide hondarkirik gabeko aldaera vs. Deklinabide hondarkiduna:** Batzuetan deklinabide hondarkiaz eta bestetan barik dokumentatzen edo erabiltzen dira toponimoak, halakoetan deklinabide hondarkirik gabekoa hobetsi behar da: *Iturrotzaldapa* edo *Iturrozko aldapa*.

Deklinabide hondarkidunetan, adi ibili beharra dugu eta ozenez amaitzen diren toponimoetan, alegia, n, -l edo -r amaieradunetan, hiru aukera izango ditugu, eta ahozko erabilerak adieraziko digu zein erabili: *Zabalgo*, *Zabaleko* edo *Zabalko*. Lehen biak dira zaharrenak, eta hobestekoak.

- ▶ **Loturik ala bereiz:** oro har toponimo konposatuak loturik idatziko ditugu, inolako marrarik gabe (salbuespena marratxoaren erabilera arauetan ageri dena, bi lekuren batuketa denean: *Amorebieta-Etxano*, *Eskio-Itsaso*, *Larruskain-Amallo*). Mendebaldean sarritan auzo izena eta baserriaren izena ageri dira, halakoetan ere loturik emango ditugu: *Barinagarementeria*, ez ordea, bi auzoren elkarketa denean: *Lutxana-Enekuri*.

- ▶ **Tokian tokiko ezaugarriak:** Tokian tokiko euskararen ezaugarriak gorde ahal izango dira, aspaldian dokumentatutako ezaugarriak baldin badira. Besteak beste: mendebaldeko euskalkiaren ekialdeko azpi euskalkian esate baterako (Lea-Artibai eta Durangaldea) amaierako -koa>-kua egiten da, eta dokumentazioan hala jasotzen da aspalditik: *Patrokua*; txistukarien neutralizazioak ere dokumentazio zaharrea ageri dira, bereziki herskari aurreko txistukarienak: *Aristegi*, *Askartza*, *Amesti*, *Gastañaga*, *Basterretxea*. Halere, aldaketa egungo ahoskeran bakarrik jasotzen bada, idatziz ez da arautuko: **Sabala*>*Zabala*; azkenik bokal irekierak, euskalkiaren ezaugarri direnean, dardarkarien aurreko bokalean esate baterako, eta ez ondoko silaben eraginez gertatutakoak: *Etxebarria* (berri>barri). Azken batean toponimia oso loturik euskalkiekin, eta hizkera estandarerako onartu ez diren zenbait hizki edo fenomeno onargarriak dira toponimian, baldin eta dokumentazioak hala babesten badu.

Arautzea ez da euskara batuan ematea, euskara egokian ematea baizik eta Uriarte, Iriarte eta Hiriarte hirurak dira egokiak.

Izenaren idazkera egokiaren bila

Fenomeno edo aldaketa bat onartu ahal izateko, aspaldiko gertaera edo aldaketa fonetikoa dela baieztatu behar dugu, eta euskalkiaren ohiko normari jarraitzen diola. Horrela, XVIII. mende amaieran dokumentatzen baldin bada fenomeno, oinarri ona izan daiteke aldaketa hori arautu ahal izateko. Izan ere hizkuntzaren diakronian garai inportantea izan zen eta azken aldaketak orduan gauzatu ziren.

- ▶ **Artikuluak:**

Nahiz eta artikulua jatorrizko forman agertu, sarri askotan desagertu egiten da, eta ondo aztertu behar da zein den egungo ahozko erabilera eta zein den idatzizko dokumentazio zaharrea gehien ageri dena. Oro har, artikuludun forma izan ohi da arautu beharrekoa: *Goikoetxea*<*Goikoetxe*.

Artikuluarekin lotuta bada, kontuz ibili beharreko beste fenomeno bat, -e paragogikoarena hain zuzen ere. Kontsonante + artikuluz eta kontsonantez amaitzen diren toponimoetan gertatu ohi den fenomeno da. Euskal Herrian alderdi ezberdinetan

gertatu ohi da, mendebaldea, iparraldean eta Nafarroa ekialdean, esate baterako, baina jatorri bera duen arren, fenomenoaren hasiera data ezberdina da. Horrela, mendebaldean ez dira onargarriak honako hauek: *Urezaranze>Urezarantza, *Arane>Arana, *Autzagane>Autzagana, *Atxabiribile>Atxabiribil, *Mendibile>Mendibil, *Zabale>Zabala, *Tabernazarre>Tabernazarra, *Txomintxune>Txomintxuena eta abar.

Fenomeno hori XX. mendekoa da, zenbait kasutan XIX. mende erdialdetik ere dokumentatu izan da mendebaldean, baina ez da nahikoa arautu ahal izateko, fenomeno berriztat jotzen baitugu. Eta azken batean deklinabide kaltetuaren ondorioa da, deklinabidean erabili ohi den –e epentetikoaren aztarna besterik ez baita.

Beste eremu batzuetan -ea erabiltzen da, eta badirudi zenbaitetan tradiziozkoa dela: *Txintxarrea*, *Bidezabalea* (Nafarroa ekialdean), baita Gipuzkoako ekialdeko –enea amaierak ere.

▶ **Txistukari afrikariz bukatzen diren toponimoak:** Leku genitiboa gehitzen denean zuzenean egiten da –ko, eta halakoetan afrikaria frikari bihurtzen da: *Oskotz* baina *Oskozko zubia*, *Ostokaitz* baina *Ostoikaizko etxeazpia*.

Salbuespenak ere badira, ondoan herskari ahoskabea dutenak afrikatua mantentzen dute: *Okorraitz* baina *Oskorraitzko kaskoa*. Baita hitz barruan ere: *Aitzpuntatxorrotx*. Hauek ere ontzat eman behar dira. Azken batan ahozko erabilerari so egin behar diogu halakoetan.

▶ **a>e itxiera aurrerako bokalaren eraginez:** *Ortue*, *Itze* bezalakoetan bokal itxiera hauek ez dira onartuko. Mendebaldean esate baterako **Luberri* ez da onargarria, izan ere *Lubarri* da forma zuzena, eta *Luberri* aurreko bokalaren eraginezko bokal itxitura duena forma.

▶ **Bokal asimilazio eta disimilazioak:** errekea>erreki>erreki bezalakoak, eta *Durungo* edo *Durungu* (*Durango*) bezalako asimilazioak ez dira arautuko.

▶ **Bokal protetikoa berreskuratu egingo da:** *Rotabidea*>*Errota bidea*, bokal protetikoaren galera, ohikoagoa da euskalduna izandako eremuetan, erromanizazioaren eraginezko fenomeno bat.

▶ **Azken bokalaren irekiera:** Erdararen eraginez azken bokala irekitzeko joera dago: *Luku*>*Luko*, *Basutu*>*Basurto*, *Deustu*>*Deusto*. Euskara galdu den tokietan –o amaitzen direnak –u arautuko dira.

▶ **Erdal plurala eranstea:** ohiko gertaera mendebaldeko euskalkietan: **Arketas* (*Arketa*), **Arriagas* (*Arriaga*), **Arestis* (*Aresti*), **Agirres* (*Agirre*), **Erletxes* (*Erletxe* edo *Erletxeta*). Jakina, ez da arautuko.

▶ **Bokal elkarketak oro har ez dira desegin behar, ahoskerari ondo begiratu beharko zaio:** *Uribetxebarria* (*Uribeetxebarria*), *Patroienuurrekoa* (**Patroienuurrekoa*), *Otola* (**Otaola*?). Baina, asimilazioa gauzatu ez bada, bi bokalak idatziko dira: *Aldapaaundi*.

▶ **<<H>>rik ez da idatziko ahoskatzen ez bada:** ekialdeko euskalkietan ahoskatzen bada arautu egingo dira, baita kontsonante atzean gordetzen direnak ere: *Bordaithurri* edo *Ohianbeltz*. Bestelako gertaera da *lhurreta* / *lurreta*.

▶ **Ozen ondoan frikaria afrikatu egiten da:** *Arantsoro*. Baina euskalki batzuetan ez: *Aransolo*, *Arzubia*. Lekuan lekuko ezaugarriak. Euskara bizirik den eremuetan errazagoa da hau identifikatzea, hiztunek zelan esaten diote galdetzea baino ez dago.

▶ **Beste txistukari batzuk etimologiari bergira:** *Artatza* eta ez *Artaza*.

▶ **Bi aldaera izan ohi dutenak ditugu:** -oz/oz edo –iz/itz afrikariari emango diogu lehenetsuna: *Artaza*>*Artatza*.

▶ **Bustidurak:** bi motatakoak dira: asimilaziozkoa eta adierazgarria. Asimilaziozkoa, ez da arautu behar, adierazgarria, ordea, bai:

▶ **Tarteko soinuak:** jod epentetikoak ez dira arautuko: **Madarixa*>*Madariaga*.

▶ **Hagiotoponimoak:** hiru gauza berezi behar ditugu: adokazioa, santuaren izen osoa (Done Joane Bataiatzailea); hagianimoa, santuaren izen laburtua (Doniene, Donibane, Done Joane, San Joan) eta hagiotoponimoa, leku sakratua ez den abeste lekuren bat izendatzen santu izenak erabiltzen direnean (*Andramaribaso*).

Lehendabizikoak, adokazioak, Euskaltzaindiak 125. arauan esandakoari jarraitu beharko zaio. Hagianimoetan eta hagiotoponimoetan tokian tokiko erabilerak ikusi beharko ditugu. Horrela, Santi-dun izenak lotuta emango ditugu: Santimami, Santimamiña, Santikurutz. Gainerakoak bereiz idatziko ditugu, baldin eta atzetik beste elementuren bat ez badute: *Sanpablomendi* edo *Sanpelaioaldea*.

▶ **Etxe izenak:** ondo begiratu beharko diogu dokumentazioari. Etxe izenak dira toponimia txikian ugariak, eta erabilienak, horrek hainbat fonetismo galera gertatzea eragiten du, eta ondo begiratu beharko diogu gertatutako galerei: *Elorga* (*Elorriaga*), *Gontxea* (*Goienetxea*), *Basalei* (*Basazela*), *Madaria* (*Madariaga*), eta abar. Izena oso-oso berreskuratu behar dugu, fonetika-gertaera hauek ahozko gertaera berriak baitira.

Kale-izendegia

Kale-izendegia, udalerriko toponimiaren beste atal bat izan ohi da, maiz toponimiarekin lotura duena, baina beste fenomeno batzuk ere badituena eta irizpide berezia behar dutenak. Hona hemen labur-labur zenbait irizpide:

- ▶ **Izen berezia + kalea:** ez da gaztelerazko “de” preposizioa itzuliko.
- ▶ **Izen arruntak:** izen elkartu gisa: *Konstituzio plaza*, *Foru pasealekua* (inolako artikulu edo kasu markarik gabe).
- ▶ **Genitibo marka eramango dute honako hauek:** batetik, deikzioaren mugatasunak derrigor artikulua azalera duenean: *Arbos musikariaren plaza* (**Arbos musikari plaza*), izen bereziaren ondoan izen generikoa agertzen denean (profesioak eta abar): *Jado Fundazioaren kalea* (**Jado Fundazioa kalea*), hala ere, hobe da izen berezia soilik erabiltzea. *Marañon kalea*, baina *Alfonso VIII.aren kalea*. Bestetik, leku genitibo leku bati erreferentzia egiten dionean: *Geltokiko kalea*. Hala ere, badirudi tradiziozko hiri-toponimian “-ko”rik gabe ere eman dela : *Labekale*.

Kontuz, batzuetan ezin da generikoa kendu. Foru pasealekua Konstituzio plaza 3. Baina Donibane 5. Ni neu ere beheko Mojen plazan bizi naiz eta maiz saila egiten zait hori erdaldun bati jakinaraztea: plaza de? No Beheko Mojen plaza, ezin baitiot plaza generikoa kendu: Beheko Mojen? Beheko Mojak ?

- ▶ **Kale izena toponimo zahar bat denean.** Horrelakoetan toponimoari begiratu beharko diogu eta hitz oso oso berreskuratu da: artikuluarekin edota artikulurik gabe.
- ▶ **Bide osagaia dutenak:** kale hitza ez da idatziko eta bide loturik izen bereziari: Kanterabidea, Murgilbidea, Aldapabidea. Bi hitz edo gehiago ditugunean ez: Elbira Zipitra andereñoaren bidea.
- ▶ **Pertsona izenak:** erdal izen deiturak, erdarazko grafiaz emango ditugu. Euskal izen deiturak, noiz euskaldundu da argitu behar duguna. Pertsonaiaren ibilbidea ikusi behar, eta oro har, garai batetik aurrerakoak itzulgarriak dira: *Bernat Etxepare* idaztea zuzenena dela ematen du, ez *Echepare*. Izena aldatu ahal izan, eta egin ez dutenek eurek erabilitako moduan utzi beharko ditugu: *Jean Harichelar*, esate baterako halako kalerik balego.

- ▶ **Santu Izenak:** santu izenen arauari jarraituz (125. araua). Zail da askotan euskal izena jatorra ofizial egitea euskaldunok San Pedro edo horrelakoak erabiltzen baititugu, baina Ikean ez badugu *mesanotxe* onartzen gure kalean ez da onargarria Santa Maria edo San Esteban.

Linguistikatik kanpoko irizpideak

Lehen esan bezala, orain artekoak irizpide linguistikoa zehatzak izan dira, baina toponimoak arautzerakoan oso gogoan izan behar ditugu irizpide soziolinguistikoak ere, aurretik azaldu ditugun irizpide-arauei kalterik egin gabe betiere. Horrela, aldaera bat hautatzerakoan, edo artikuluan berreskuratzean, ondo begiratuko diogu aldaketak normalizatzeko orduan izan ditzaken harrerari; eta Euskaltzaindiarekin batera, irizpideak eztabaidatu ahal dira, euskara teknikariak edo lekuaren idazkera ofiziala erabakitzeko eskumena duen erakundeak egokiak deritzan argudio eta baldintza soziolinguistikoak azaldu beharko ditu horretarako.

Nolanahi ere, esan bezala arautze prozesuarekin ez da prozesua amaitzen, eta toponimoen erabilera egokia normalizatu behar dugu. Baina hori ondorengo hitzaldian azalduko du Felix Mugurutzak.